

ORREAGA 778: NAZIOAREN GARAITZA ETA ESTATUAREN KIMUA

Iñigo Saldise, Iruinea Nabarra (2008.8.15)

Munduaren historiako mugari izan zen 778ko abuztuaren 15a. Orduan pairatu zuen Karlomagnoen Inperioaren edo frankoen armadak, garai hartako armadarik onenak, inoizko porrot bakarra; baskoien herriaren ekintza erabakigarria ere izan zen, ordea, bere askatasunaren zaintzaile arretatsua izaki, gerora Estatu subirano bihurtu zena nafar edo baskoi independente zeritzenentzat.

Iruñea, baskoien hiria, suntsitzeko agindu zuen Karlomagnok, musulmanen Zaragozako gotorlekua menderatu ezinean geratu zelarik. Zapalkuntza ekintza bat izan zen, nafarrek neutraltasunez jokatu zutelako frankoek Ebroren ibaiertzeko gotorleku musulmanen kontra hasitako ekintza militarri aurre egiterakoan. Iruñearen aurkako ekintza militar hark inoiz izan ez bezalako batasuna ekarri zuen baskoien herrira, zeinean alde batera utzi baitzituzten elkarren sinesmenak eta erlijio desberdintasunak -askotarikoak izaki: kristaua, musulmana eta bertakoa edo paganoa-, eta guztiek elkar hartuta aurpegi eman baitzioten arerio komunari, frankoen armadari.

Estrategikoki, taktika ezin hobea erabili zuten baskoiek. Nafarren tropak, ongi antolatu eta Orreaga inguruko Astobizkar iraganbide naturalaren ingurumarian bildu ziren. Karolingiarren zalditeriaren gailentasunaz jakitun, etekina atera zioten inguruneaz zuten ezagutzari eta beste zenbait alderditan zuten gailentasunari -hala nola egun artilleriako erregimentua deritzon, arma arinagoak baitzituzten, baina haienak bezain hilgarriak-; ezin hobeto gertatu zuten gudua eta, ezinbestean, nafarrek nabarmen garaitu zituzten frankoak.

Guduaren aurrekariak

Karlomagnok Franciacum gotorlekua eraiki zuen Bordele ondoan 769an, handixe sendotu nahi baitzuen gero Vasconiaren konkista. Baskoien buruzagi batek aurpegi eman zion aldi batean. Otsoa edo Lupo, dux Vasconum, zeritzon baskoien buruzagi hark. Urte hartan bereganatu zuten frankoen tropek Pirinio iparraldeko Baskonia. Ez hala, ordea, mendilerroaren hegoaldeko Baskonia zatia, Karlomagnoen kronikari Eginardok honela idatzita jaso zuenez:

«Ohartarazirik, agindua bete ezean, gudu asmo erabatekoz sartuko zela Baskonian, eta ez zuela handik alde egingo, harik eta bere agindua bete arte. Erregeren mandatariek izututa, Lupok berehala entregatu zizkien Hunaldo eta bere emaztea, eta haien bidez hitzeman zien bere agindu oro betearaziko zuela.

Zinez... handitu egin zuen frankoen erresuma... Izan ere, lehen batean Galiako zati batera mugatzen zen, Rhin eta Loira ibaien eremura, Sartaldearen eta Balearretako itsasoaren artekoa, eta Germaniako zati bateraino... Eta hark, aipaturiko gerra horiek zirela bitarteko, Akitania eta Baskonia, eta Pirinioetako goi mendiak batzea lortu zuen, Ebro ibaira arte,

zeinak nafarren lurreen sortu eta Hispaniako lur ezin emankorretatik barrena joanda, Balearretako itsasoan isurtzen baititu bere urak, Tortosa hiriko harresipean; hurrena Italia osoa...»

Hurrengo, 778ko udan, Karlomagnoen tropak, Zaragozaraino iritsi ziren, behin Sulaiman Al Arabi valiarekin aliatu ostean; Ebro ibaiertzeko gotorlekua emango ziola hitzeman zion, frankoekin aliatu eta, hala, Kordobako kalifaldiarekiko independentzia lortzearen truke.

Baskoien aurkako inolako borroka ekintzarik egin gabe iragan ziren frankoen tropak nafarren lurretik; soldadu talde bat ere utzi zuen baskoien hiriburuan. Banu Kuasi-en edo Tuteran inguruan kokaturiko baskoi musulmanduen aurka, baina, hainbat borroka izan zituzten.

Ondoren, Zaragoza hiriko ate aurrean agertu zen Karlomagno, zeina itxita aurkitu baitzuen Husain vali berriaren aginduz. Hiri musulmanaren setio luze batek ekar ziezazkikeen eragozpenak kontuan harturik, eta saxoiek Rhin ibaian zehar egindako sarraldien berri jakinik, frankoen inperioko lurraldeetara itzularazi zituen tropak.

Sulaiman Al Arabi bahitu zuen eta harekin itzuli zen, Zaragozako musulmanen balizko erasoeri aurre egin behar bazien ere. Karlomagnok hala agindurik, Iruñeko harresiak eraitsi zituen frankoen armadak, eta errauts bihurtzeraino suntsitu zuten nafarren hiriburua, ezin menderatuko zituen jakitun.

Orreagako gudua

Behin Nafarroako hiriburua suntsituta, iparralderantz jo zuten frankoek, Orreaga inguruko Astobizkar iraganbide naturalaren bila. Bitartean, nafarrak antolatzen hasi ziren. Baskoi guztiak deitu zituzten gerrara, ez soilik independentistak edo nafarrak, baita Pirinio iparraldeko baskoiak ere, aspaldi ez zuela hasi baitziren pairatzen frankoen inposizioa. Haiekin bat egin zuten Banu Kuasi edo baskoi musulmanduek ere.

Frankoen zalditeriaren gailentasunaz jabetuta, Pirinioetako Astobizkar iraganbidean kokatu ziren nafarrak. Estrategia bikaina eta borroka ahalmen izugarria baliatuta, frankoen armadako atzealdeari eraso zioten nafarrek Orreaga inguruan, 778ko abuztuaren 15ean; huraxe izan zen Karlomagnoen tropa ahaltsuek inoiz pairatu behar izan zuten porrot bakarra.

Frankoen armadaren atzealdeko ia soldadu guztiak hil zituzten nafarrek: besteak beste, Errolan, Britainia eskualdeko kondea, eta haren bizigaiez jabetu ziren. Nafarren estrategia gailentasuna zela eta, frankoek ez zuten inolako aukerarik izan.

Garaitzaren ondorioak

Nafarrek borrokari eutsi zioten, frankoen eta kordobarren eragin bikoitzarekiko independente izateko. 800. urtetik aurrera, frankoen presentzia sendotu zen Pirinioetan, eta horrek liskarrak sortu zituen berriro ere nafar eta kordobarren artean.

Lurraldea kontrolatzeko borroka bizitu zen, harik eta azkenean Eneko Aritzak boterea bereganatu zuen arte 816. urtean, Banu Khasien laguntzari esker. Iruñeko errege izendatu zuten nafarrek 824an, eta hor hasi zen baskoi independentisten edo nafarren Estatuaren historia.